

HERNANIKO MIKROKREDITUEN DIRU-FUN TSA MEMORIA: 2016KO IRAILA-2017KO IRAILA



AURKIBIDEA

1. AURREKARIAK ETA PROIEKTUA MARTXAN JARTZEA.
2. JARDUNBIDEA.
3. MIKROKREDITUEN DIRU-FUN TSA HAINBAT DATUTAN.
4. GORABEHERAK.
5. LOTUTAKO BESTE EKINTZA BATZUK.
6. GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK.

1. AURREKARIAK ETA PROPOSAMENA MARTXAN JARTZEA

Hernaniko Mikrokredituen Diru-funtza hasiera batean Hernaniko Stop Kaleratzeak plataformaren proposamena izan zen eta, gero, Hernaniko Udaleko Hernani Erabaki aurrekontu parte-hartzaileen bidez bultzatu zen eta herritarren babesa jaso zuen 2015ean.

Programa gauzatu ahal izateko Fiare Proiektua Babesteko Elkartearengana jo zen, elkarte horrek, beste elkarte batzuekin lankidetzan, jarduera para-bankarioekin zeukan eskarmentuarengatik. Horrela, Udalaren eta Fiare Proiektua Babesteko Elkartearen artean hitzarmen bat prestatu eta 2016ko otsailean sinatu zen.

Lehen erreferentzia markoa taxutu ondoren, programaren prozedura zehazteko pausuak ematen hasi ziren Hernaniko Mikrokredituen Diru-funtsaren Kudeaketa eta Balorazio Batzordean. Batzorde horretan honako erakunde eta elkarte hauek daude ordezkaturak: Udalaren Gizarte Zerbitzuak, Fiare Elkarte, AMHER-Hernaniko Kultur Aniztasunerako Elkarte eta STOP Kaleratzeak elkarte.

Hernaniko Mikrokredituen Diru-funtza gizarte-bazterketa arriskuan dauden pertsona eta familien behar puntualei erantzuteko tresna da.



Argazkia. Fiare Elkartearen eta Hernaniko Udalaren arteko hitzarmena sinatzeko unea.

Hainbat bileraren ondoren Mikrokredituen Diru-funtsaren prozedura zehaztuta geratu zen eta, ondoren, 2016ko irailaren 5ean Udaletxean emandako prentsaurreko baten bidez, proiektuaren aurkezpena egin zen, proiektuan parte hartzen duten eragile guztiak bertan zirela.



Argazkia. Mikrokredituen Programa Udaletxean aurkezteko unea.

Prentsaurrekoaz gain, kartel bat eta azalpen orri bat ere prestatu zituen Udalak, gizarte- eta finantza- bazterketa egoerei irtenbide bat emateko helburua duen diru-funtsaren berri herritarrei emateko.



Irudia. Mikrokredituen funtsaren zabalkundea egiteko kartela

Egunkarietan gai honi buruz argitaratutakoak:

<http://www.diariovasco.com/buruntzaldea/201604/15/convenio-entre-consistorio-fiare-20160415010329-v.html>

<http://www.kronika.eus/albisteak/hernani/albisteak/2016/09/06/e9c9f9e259068/baztertze-arriskuan-dauden-herritarrek-interesik-gabeko-mikrokredituak-eskatu-ditzakete-gaurtik/>

<http://www.noticiasdegipuzkoa.com/2016/09/06/vecinos/buruntzaldea/hernani-ayuda-con-creditos-a-necesitados>

2. JARDUNBIDEA.

Hona hemen eskabide bat aurkezten denetik eskaera horri erantzun bat ematen zaion arte jarraitzen den jardunbidea.

Mikrokreditu eskaerak Hernaniko Udaleko herritarren harrera zerbitzuan jasotzen dira. Eskabideetan eskatzailearen oinarrizko datuak, eskatzen duenaren inguruko datuak eta itzulketa egiteko proposatzen duen modua jasotzen dira, besteak beste.



MIKROKREDITUEN ESKAERA ORRIA Hoja de solicitud de los microcréditos

DATU PERTSONALAK / Datos personales

- IZEN-ABIZENAK _____
Nombre y apellidos
- JAIOITZA-DATA _____
Fecha de nacimiento
- NORTASUN AGIRIA _____
Documento de identidad
- HELBIDEA _____
Dirección
- TELEFONIA _____
Teléfono
- POSTA ELEKTRONIKOA _____
Correo electrónico

AURKEZTUTAKO DOKUMENTUAK / Documentos presentados

- Errenta aitortpena edo egiteko beharrik ez duela dion ziurtagiria / Declaración de la renta o certificado de no tener obligación de presentarla
- Gipuzkoan jabetzan dituen ondasun-higiezinaren ziurtagiria / Certificado de bienes inmuebles en propiedad en Gipuzkoa

(OHARRA: Ogasunean eskatu, Errotaburu, 2. Donostia / NOTA: Solicitar en Hacienda, Errotaburu, 2. Donostia)

ESKATZEN DUEN KOPURUA _____
Cantidad solicitada

ZER ORDAINITZEKO ESKATZEN DU? _____
¿Para qué lo solicita?

HILEKO DIRU-SARRERAK _____
Ingresos mensuales

BERE KARGURA DAUZKAN SENIDEAK _____
Familiares a su cargo

- Mikrokreditua itzultzeko egindako proposamena errealista ote den eta eskatzailearen egoera ekonomikoarekin bat ote datorren aztertzen du, eta, beharrezko jotzen badu, aldaketak proposatzen ditu.
- Mikrokredituarekin egingo diren gastuen aurrekontuak eskatzen ditu.
- Bere txostena eta balorazioa Gizarte Zerbitzuak erakundeak egindako txostenari eransten dio.
- Datu pertsonalak kodetzen ditu, eskatzaileen anonimotasuna gordetzeko.
- Hori guztia Kudeaketa eta Balorazio Batzordeari helarazten dio.

Kudeaketa eta Balorazio Batzordeak bilera bat egiten du lehen aipatutako ordezkari guztiekin eta bilera horretan:

- Eskabide bakoitza aztertzen du jasotako txostenak kontuan hartuta.
- Mikrokreditua ematea ala ukatzea erabakitzen du eta, emanaz gero, zein baldintzatan emango den zehazten du. Dena akta batean jasotzen da idatziz.
- Ukatzuz gero, ukatzeko arrazoiak azaltzen ditu.
- Eskabideren batean beharrezko jotzen diren datuak falta badira, eskabidea etenda uzten du datu horiek lortu arte.
- Eskabidearen inguruko ebazpena Fiare Elkarteari bidaltzen dio, elkarteak eskatzaileari jakinaraz diezaion.
- Jardunbidea aztertzen du, hobekuntzak egiteko.
- Arazoak, zalantzak edo zailtasunak sortzen badira, haiek konpontzeko irtenbideak proposatzen ditu.

Fiare Elkarteak hau egiten du batzordearen ebazpena baiezkoa bada:

- Eskatzaileari jakinarazten dio eta mikrokreditua emateko izapideak egiten hasten da.
- Mikrokreditua sinatzerakoan jasotzaileari gogorarazten dio jasotako kopurua itzultzeko konpromisoa hartzen duela eta oso garrantzitsua dela hori, diru-funtza izaten jarraitzeko eta jende gehiagorengana iritsi ahal izateko arrazoia baita.
- Gero mikrokredituarekin egindako gastuen fakturak eskatzen ditu.
- Eta ondoren, itzulketa adostutakoaren arabera egiten ari ote den egiaztatzen du eta, atzerapenak edo zailtasunak gertatzen badira, eskatzailearekin harremanetan jartzen da horren arrazoiak zein diren jakiteko. Beharrezko jotzen badu, itzulketa egiteko beste modu bat planteatzen du.

Ebazpena ezezkoa bada:

- Eskatzaileari jakinarazten dio eta ezezkoaren arrazoiak ematen dizkio.

Ebazpenean erabakia hartu ahal izateko informazio gehiago eskatzen bada:

- Eskatzailearekin harremanetan jartzen da informazio hori eskuratzeko eta ondoren txostena berriz ere, informazio berria barne, Kudeaketa eta Balorazio Batzordeari bidaltzeko, berrazter dezan.

3. MIKROKREDITUEN DIRU-FUNTSA HAINBAT DATUTAN.

Hona hemen Mikrokredituen Diru-funtsaren inguruko hainbat datu 2016. urteaz geroztik:

- Hernaniko Udalak 45.000 € jarri ditu Mikrokredituen Diru-funtserako, horietatik 30.000 € diru-funtza eratzeko (2016ko irailean) 2016ko aurrekontuen kontura (Hernani Erabaki) eta 15.000 € 2017ko aurrekontuen kontura (2017ko ekainean).
- Guztira 35 eskabide kudeatu dira eta 27 txosten egin dira.
- Beraz, 8 eskabideren inguruko txostenik ez da egin; kasu batzuetan eskabidea Zerbitzu Sozialak erakundearen diru-laguntzetan sartzen zelako, beste kasuren batean eskatzailearekin harremanetan jartzeko modurik egon ez zelako eta beste gainerako kasuetan eskatzailearen lan egoera eta egoera ekonomikoa aldatu zelako eta dagoeneko mikrokredituaren beharrik ez zuelako.
- 18 mailegu onartu dira, guztira 47.950 €.
- Mailegu horien titularretatik 11 emakumeak dira eta 7 gizonak.
- Mailegu hauek gizarte-bazterketara daramaten egoera ekonomikoak gainditzeko bideratu dira, batik bat honetarako: oinarritzko beharretako atzerapenak ordaintzeko, laneratzeko aukerak hobetzeko...
- Emandako maileguen batez besteko kopurua 2.663 €-koa izan da. Gutxieneako kopurua 1.000 €-koa izan da eta gehieneko, berriz, 6.000 €-koa.
- Itzulketak ohiko bankaren kreditu arrunten baremotik gora egiten ari dira.

4. GORABEHERAK.

- Lanbide – Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE): Lanbideri kontsulta bat egin zitzaion ziurtatzeko Mikrokredituen Diru-funtsetik maileguak jasotzen dituztenek ez dituztela beren prestazioak galduko. Lanbidek, nahiz eta berehala ez erantzun, azkenean idatziz berretsi zuen maileguak eta DBE bateragarriak zirela, laguntza hauek itzuli beharreko laguntzak baitira.
- Lukurreria-maileguetan jarduteko protokoloa: ikusirik eskatu izan diren hainbat mikrokreditu eskatzeko arrazoia lukurreria-maileguak ordaintzea zela (zenbaitetan %350etik gorako UTB tipoa zutenak), hauxe proposatu da: Stop Kaleratzek plataformarekin lankidetzan aritzen den abokatuarekin azalpen orri bat lantzea. Hona hemen oraingoz zirriborroa baino ez den dokumentu horren zenbait ardatz:

Abusuzko klausulak dituzten kontsumorako maileguei dagokienez jarduteko protokoloa

Doako justizia. Nork du eskubidea? Non eskatzen da? Zein dira epeak?

Doako justizia eskuratzeko:

<https://www.justizia.eus/justicia-gratuita/presencial>

Lukurreria legea, 1908ko uztailaren 23koa

http://noticias.juridicas.com/base_datos/Privado/1230708.html

- (art. 1) “será nulo todo contrato de préstamo en que se estipule un interés notablemente superior al normal del dinero y manifiestamente desproporcionado con las circunstancias del caso o en condiciones tales que resulte aquél leonino” .

- (art. 3) que en casos de nulidad de los contratos el cliente **sólo debe devolver al banco la suma recibida**

Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorra, 10 bis artikulua.

http://noticias.juridicas.com/base_datos/Admin/126-1984.html - a10b

“el doble del interés medio de los créditos al consumo en la fecha en que se concertó el contrato”

Lege jardunbidea eta epeak laburki azaltzea.

5. LOTUTAKO BESTE EKINTZA BATZUK.

2016ko eta 2017ko irailean Extremadura eta Toledon, hurrenez hurren, finantza alternatiboen estatuko sarearen (REFAS) urteroko topaketak egin ziren. Topaketa horietan Mikrokredituen Diru-funtza aurkeztu zen eta bere jarduera estatuko beste leku batzuetan jarduera para-

bankarioan diharduten beste entitate batzuekin kontrastatu zen, esate baterako Microfides edo Fiare Valladolikek, Valladolideko diputazioaren bitartez, gizarte ekintzailtzarako kudeatzen duen mikrokredituen programarekin.

2016ko azaroan Ekonomia Sozial eta Solidarioaren II Kongresua egin zen Bilbon. Hernaniko Udalak Programa hau aurkeztu zuen kongresu horretan, beste proposamen batzuen artean, eta hemengo esperientzia partekatu zuen, gaur egun Kongresuaren materialen artean eskura dagoena.

<https://www.diagonalperiodico.net/global/32314-muro-la-financiacion-se-agrieta-municipios.html>

<https://esskongresua.net/wp-content/uploads/119-Mikrokredituak-FIARE.pdf>

Bestalde, Andoaingo Udala gurearen antzeko ezaugarriak izango dituen Mikrokredituen Diru-funtza martxan jartzeko puntuan dago. Eta Gipuzkoako, Nafarroako eta Kataluniako beste hainbat udal ere Hernaniko Udalarekin eta Fiare Elkartearekin harremanetan jarri dira mikrokredituen diru-funtsaren inguruko gure esperientziaren berri izan nahian.

6. GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK.

Diru-funtza aurrera eramán ahal izateko ezinbestekoa izan da proiektua modu onean aurrera eramango duten hainbat pertsonekin kontatzea. Gaur egun Kudeaketa eta Balorazio mahaian ESTOP Kaleratzeak plataformako eta AMHER eta Fiare Elkarreetako boluntarioak eta Hernaniko Zerbitzu Sozialak erakundearen arduraduna den zinegotziak hartzen dute parte. Horiez gain, Udaleko Zerbitzu Sozialak erakunde teknikari bat ere badago, zeinak astean lau ordu Programari eskaintzen baitizkio, gizarte-bazterketaren inguruko txostenak eginez. Azkenik, Fiare Elkarreak kontratatutako beste teknikari bat dago, finantza-bazterketaren inguruko txostenak prestatu eta haien jarraipena egiteko, eta dokumentazio guztiaren balorazioa egiteko. Mikrokredituen Diru-funtsak gastuetarako egiten duen ekarpena 600 €-koa da, urteko guztizkotik deskontatzen direnak.